**Biztanleen ohitura kulturalak desberdinak dira lurraldeen arabera.** Ipar Euskal Herriko biztanleek ohitura handiagoa dute inora joaterik eskatzen ez duten jarduerak egiteko (irakurri edo musika entzun), norabait joatea eskatzen dutenekin alderatuta (esaterako, museoetara, erakusketetara edo antzerkira joatea). Bestalde, Nafarroako eta EAEko biztanleen ohiturak oso antzekoak izan ohi dira, eta irakurketa eta musika gailentzen dira haien artean ere. Hala ere, norabait joatea eskatzen duten eta ez duten jardueren arteko desberdintasuna ez da hain esanguratsua.

[1] Biztanle elebidunei bakarrik egin zaie ohitura honi buruzko galdera.

**16. irudia.** Pertsonak, EAEn azken urtebetean izan den kultura-jarduerak egiteko ohituraren arabera (%)




**17. irudia.** Pertsonak, Nafarroan azken urtebetean izan den kultura-jarduerak egiteko ohituraren arabera (%)




**18. irudia.** Pertsonak, Ipar Euskal Herrian azken urtebetean izan den kultura-jarduerak egiteko ohituraren arabera (%)




[1] Biztanle elebidunei bakarrik egin zaie ohitura honi buruzko galdera.

**Denbora falta eta kostu ekonomikoa dira biztanleek jarduera kultural gehiago ez egiteko arrazoi nagusiak.** Denbora falta da kontzertuetara (%43,6), zinemara (%41) eta ikuskizun eszenikoetara (%49,4) ez joateko gehien ematen den arrazoia. Kostu ekonomikoak, bestalde, eragin handiagoa du zinemara (%41,8) edo kontzertuetara (%41,4) joateko orduan, eta eragin askoz txikiagoa ikuskizun eszenikoetara joateko orduan (%27,5). %5,4k soilik uste du eskaintza eskasa dela faktore murriztailea zinemaren kasuan, baina kontzertuei (%26,7) edo ikuskizun eszenikoei (%28) dagokienez, uste hori nabarmen igotzen da.

**19. irudia.** Kontzertuetara joateko ohitura duten pertsonak gehiago ez joateko arrazoiak (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Kontzertu gehiagotara joatea gustatuko litzaieken pertsonak, joateko ohitura dutenen %74,5

**20. irudia.** Zinemara gehiago ez joateko arrazoiak (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Zinemara gehiago joatea gustatuko litzaieken pertsonak, biztanleen %58

**21. irudia.** Antzerkia ikustera gehiago ez joateko arrazoiak (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Ikuskizun eszenikora gehiago joatea gustatuko litzaieken pertsonak, biztanleen %52,9

## 2.3. JARDUERA ETA KONTSUMO KULTURALEN EZAUGARRIAK

**Irakurtzea eta liburutegietara joatea maiztasun ohiko kontsumitzaileek oso maiz egiten dituzten jarduerak dira.** Liburutegietako ohiko erabiltzaileak (biztanleen %19,3) 5,6 aldiz joaten dira hilabetean, batez beste. Desberdintasun nabarmenak daude lurraldearen arabera: intentsitatea altuagoa da EAEn (6 aldiz, batez beste) eta Nafarroan (5,3) Ipar Euskal Herrian baino (3,6). Bestalde, irakurtzeko ohitura dutenek (biztanleen %47,1) hilabetean batez beste 1,8 liburu irakurtzen dituzte.

**22. irudia.** Azken hilabetean liburutegira joandako aldien batezbestekoa, lurraldearen arabera




Oinarria: Joateko ohitura dutenak (azken hilabetean liburutegi batera joan diren pertsonak, biztanleen %19,3

**23. irudia.** Azken hilabetean irakurritako liburuen batezbestekoa, lurraldearen arabera




Oinarria: Irakurtzeko ohitura dutenak (azken hilabetean aisialdiko liburuak irakurri dituzten pertsonak, biztanleen %47,1)

**Beste zenbait jarduera kultural ere, hala nola telebista ikustea edo irratia entzutea, oso zabalduta daude Euskal Herrian.** Esaterako, telebista ikusten 17,9 ordu ematen ditugu astean batez beste, eta Ipar Euskal Herrian 26 ordutik gora. Bestalde, irratia entzuteko ohitura dutenek (biztanleen %77,4) 17 ordu eskaintzen dizkiote jarduera horri, eta berriro ere Ipar Euskal Herriko ehunekoa altuagoa da, 23,5 ordu. EAE da bi jarduera horiei denbora gutxien eskaintzen dien lurraldea.

**24. irudia.** Astean telebista ikusten eta irratia entzuten emandako orduen batezbestekoa, lurraldearen arabera




Oinarria:Telebista ikusteko ohitura duten pertsonak, biztanleen %92,8

Oinarria: Irratia entzuteko ohitura duten pertsonak, biztanleen %77,4

**Euskal Herrian musika maiz entzuten duten biztanleek astean 9,2 ordu eskaintzen dizkiote, batez beste, jarduera horri.** Kopuru hori zertxobait altuagoa da Ipar Euskal Herrian (11 ordu) eta baxuagoa EAEn (8,7).

**25. irudia.** Astean musika entzuten emandako orduen batezbestekoa, lurraldearen arabera




Oinarria: Musika entzuteko ohitura duten pertsonak (musika egunero edo ia egunero entzuten duten pertsonak, biztanleen %75)

**Zinemara maiz joaten diren pertsonak** (biztanleen %41) **gehiagotan joaten dira antzerki-ikuskizunak ikustera joaten direnak baino. Batez beste 3,2 film ikusten dira hiruhilekoan, hau da, hilabetean film bat.** Antzerkira joaten direnak, berriz (biztanleen %9,5), hiru hilabetean 1,7 aldiz joaten dira.

**26. irudia.** Azken hiruhilekoan zinemara joandako aldien batezbestekoa, lurraldearen arabera




Oinarria: Joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan zinemara joan diren pertsonak, biztanleen %41 )

**27. irudia.** Azken hiruhilekoan antzerkia ikustera joandako aldien batezbestekoa, lurraldearen arabera




Oinarria: Joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan antzerki-emanaldietara joan diren pertsonak, biztanleen %9,5)

**Irakurtzeko ohitura dutenen ia erdiek**(Azken hiruhilekoan liburuak irakurri dituztenak) **liburuak erosi dituzte azken hiruhilekoan.** Euskal Herrian batez beste 4 liburu erosten dira. Batezbesteko hori txikiagoa da Ipar Euskal Herrian (2,7 liburu) eta handiagoa Nafarroan (5 liburu).

**28. irudia.** Azken hiruhilekoan erositako liburu-kopuruen batezbestekoa, lurraldearen arabera




Oinarria: Azken hiruhilekoko irakurleetatik, epe horretan libururen bat erosi dutenak, biztanleen %44,8)

**29.** irudia. Azken hiruhilekoan liburuak irakurri eta erosi dituzten pertsonak, lurradearen arabera (%)




Oinarria: Azken hiruhilekoan libururen bat irakurri duten pertsonak, biztanleen 69,5%

**Musikari dagokionez, azpimarratu behar da galdetutako pertsonen %30,7k musika erosi duela azken hiruhilekoan.** Liburuen kasurako lehen aipatutako datuei aurka eginez, musika-erosketa zabalduagoa dago Ipar Euskal Herrian (ia %40) eta gutxiago Nafarroan (%28,2).

**30. irudia.** Azken hiruhilekoan musika erosi duten pertsonak, lurraldearen arabera (%)



## 2.4. EUSKARAZKO JARDUERAK ETA EUSKAL PRODUKTUEN KONTSUMOA

**Azken hilabetean kontzertuetara joan diren pertsonen portzentaje handi bat (%67,6) euskal musikako kontzertuetara joan da.** Horrez gain, musika erosi duten pertsona gehienek (%62,1) euskal musika hautatu dute.

**31. irudia.** Pertsona elebidunak, azken hiruhilekoko euskal musikaren kontsumoaren eta lurraldearen arabera (%)




(1) Oinarria: Noizbait musika erosi dutenak, CDetan edo beste euskarri batzuetan, biztanle elebidunen %55,7
(2) Oinarria: Azken hiruhilekoan kontzertuetara joan direnak, biztanle elebidunen %23,6

**Azken urtebetean antzerkira joan diren herritar elebidunen %46,8k baino gehiagok euskarazko ikuskizunen bat ikusi dute.** Hiru lurraldeen artean, Ipar Euskal Herria da nagusi; %88,8ko portzentajea du.

**Azken hiruhilekoan liburu bat irakurri duten elebidunen** (biztanle elebidunen %66,6) **herenak euskarazko liburuak irakurri ditu.** Kasu horretan, Nafarroan dago portzentajerik handiena (%45,4); nahiko urrun ditu Ipar Euskal Herria (%39,4) eta, batez ere, EAE (%35,7).

**32. irudia.** Pertsona elebidunak, euskarazko kultura-jardueren eta lurradearen arabera (%)




(1) Oinarria: Azken hiruhilekoan aisialdiari, lanari edo ikasketei lotutako libururen bat irakurri dutenak, biztanle elebidunen %66.6
(2) Oinarria: Azken urtebetean antzerki-emanaldietara joan diren pertsonak, biztanle elebidunen %24,7

**Biztanle elebidun gutxi joaten dira bertsolaritza-emanaldietara.** Biztanleen %17,3 joan da bertso-saioren batera azken urtebetean, eta talde handi batek (%67,8k) ez du joateko ohiturarik.

**Bertsolaritza-emanaldiak gehiago finkatuta daude EAEko eta Nafarroako biztanleetan.** EAEn, elebidunen %8,7 joan da azken hiruhilekoan bertsolaritza-emanaldi batera; Nafarroan, berriz, %7. Ipar Euskal Herrian 3,7raino jaisten da zifra hori.

**33. irudia.** Pertsona elebidunak, bertsolaritza-emanaldietara joateko ohituraren arabera (%)




Internet erabiltzeko ohitura duten elebidunen erdiek euskarazko edukiak erabiltzen dituzte. Web guneetara sartzeko eta dokumentazioa eskuratzeko erabiltzen da, batik bat, sarea (%37,4). Ondoren, musika eskuratzeko (%22,2), blogetan parte hartzeko, liburuak irakurri eta deskargatzeko (%7,2) eta foroetan sartzeko (%6,1).

**34. irudia.** Pertsona elebidunak, Interneteko euskarazko edukietara sartzearen eta lurraldearen arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Nolabaiteko jarduera kulturala egiteko sarera sartzeko ohitura duten pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %45,6,

## 2.5. INTERNET ERABILERA KULTURAREKIKO

**Galdetutako hamar pertsonatik lauk erabiltzen dute Internet kontsumo kulturalen bat egiteko.** Euskal Herrian oso finkatuta dago Internet kontsumo kulturalerako tresna gisa. Biztanleen %41,4k dio sarea erabiltzen duela kontsumo kulturalen baterako. **Sare bidezko kontsumo kulturala gazteen artean dago hedatuen.** Euskal Herriko 15 eta 24 urte arteko hamar gaztetik ia zazpik erabiltzen du sarea kontsumo kulturalerako; 25 eta 34 urte artekoek ere asko erabiltzen dute (%63,3k erabiltzen du sarea horretarako). Bestalde, 64 urtetik gorako pertsonetan jarduera hori ez dago hain hedatua (%7,7k baino ez du erabiltzen Internet kontsumo kulturalerako).

**35. irudia.** Pertsonak, kultura-kontsumorako Internetera sartzearen eta lurraldearen arabera (%)




**Ikasketa-mailak asko baldintzatzen du Internet kontsumo kulturalerako erabiltzea.** Emaitzetan ageri da unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonek ohitura dutela Internet jarduera kulturaletarako erabiltzeko (%66,6k), eta ikasketarik ez dutenek, berriz, oso gutxi erabiltzen dutela horretarako (%8,8k).

**36. irudia.** Kultura-kontsumorako Internet erabiltzen duten pertsonak, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren eta ikasketa-mailaren arabera (%)



**Kultura-gaiei buruzko web guneak kontsultatzea da sareko kontsumo kulturalaren jarduera nagusia; ohiko erabiltzaileen** %60,5 sartzen dira Interneten helburu horrekin. Egunkariak irakurtzea (%42,5), musika entzutea (%38), sarrerak erostea (%32) eta bideoak edo filmak ikustea (%26,8) ere nabarmentzen dira talde horretan.

**37. irudia.** Pertsonak, Interneteko kultura-edukietara sartzearen arabera (%)




Oinarria: Kultura-kontsumoren bat egiteko Internet erabiltzen duten pertsonak, biztanleen %41,4

## 2.6. BESTE JARDUERA KULTURAL AMATEUR BATZUK EGITEKO OHITURA

**Galdetutako pertsonen herenak kultura-jardueretan parte hartu du azken urtebetean.** Alderdi horretatik, lurralderik aktiboena Ipar Euskal Herria da (biztanleen %42,7).

**38. irudia.** Pertsonak, azken urtebetean beste kultura-jarduera batean izandako parte-hartzearen eta lurraldearen arabera (%)



**Argazkilaritza da Euskal Herriko biztanleen artean gehien zabaldua dagoen kultura-jarduera.** Jardueraren bat egin duten pertsonen artean argazkilaritza nabarmentzen da, batik bat EAEn eta Nafarroan; asko dira, halaber, margolaritzan aritzen direnak edo musika-tresnaren bat jotzen dutenak (Ipar Euskal Herrian batik bat).

**39. irudia.** Azken urtebeteko Euskal Herriko kultura-jardueretako parte-hartzearen rankinga (%)




Oinarria: Azken urtebetean beste kultura-jarduera batzuetan parte hartu duten pertsonak, biztanleen %34,7

**40. irudia.** Azken urtebeteko EAEko kultura-jardueretako parte-hartzearen rankinga (%)




Oinarria: Azken urtebetean beste kultura-jarduera batzuetan parte hartu duten pertsonak, biztanleen %34,3

**41. irudia.** Azken urtebeteko Nafarroako kultura-jardueretako parte-hartzearen rankinga (%)




Oinarria: Azken urtebetean beste kultura-jarduera batzuetan parte hartu duten pertsonak, biztanleen %32,2

**42. irudia.** Azken urtebeteko Ipar Euskal Herriko kultura-jardueretako parte-hartzearen rankinga (%)




Oinarria: Azken urtebetean beste kultura-jarduera batzuetan parte hartu duten pertsonak, biztanleen %42,7

**Emaitzetan agertzen denez, kultura-jarduerek behera egiten dute adinean aurrera egin ahala.** Biztanle gazte gehienek —15 eta 24 urte artekoek— kultura-jardueraren batean parte hartu dute azken urtebetean (%42,2), eta, adinak aurrera egin ahala, behera egiten du ehuneko horrek; 64 urtetik gorako biztanleetan agertzen da emaitzarik baxuena (%27,1).

**43. irudia.** Azken urtebetean beste kultura-jarduera batean parte hartu duten pertsonak, adin-taldearen arabera (%)




**Adinaren arabera, alde handiak daude biztanleen kultura-jardueren artean.** Musika-tresnak jotzea da gazteenen jarduerarik ohikoena; erdiko adinetan, berriz, argazkilaritza da nagusi. Bestalde, 64 urtetik gorakoek koruetan eta arte plastikoetan parte hartzen dute.

**Euskal Herriko biztanleen %12,1ek aktiboki parte hartzen du kultura-elkarteetan.** Alde handiak daude lurraldeen artean; Ipar Euskal Herria nabarmentzen da bereziki (biztanleen %34,5), eta askoz ehuneko txikiagoak daude Nafarroan (%11,4) eta EAEn (%9,5).

**44 . irudia.** Pertsonak, azken urtebetean parte hartu duten kultura-jardueren eta adin-taldearen arabera (%)



Oinarria: Azken urtean jarduera kulturalak burutu dituzten pertsonak, biztanleen %34,7

## 2.7. BALDERAKETA EUROPAREKIN

Atal honetan, alderaketa labur bat egiten da Europako kultura-ohituren adierazleekin, Eurostat-en informazioa erabilita. Adierazle homologagarriak soilik hautatu dira, eta informazioaren erreferentzia-aldia 2007koa da. Hala eta guztiz ere, iturri bat baino gehiagotatik eskuratutako datuen irakurketa alderatua kontu handiz egin behar da, metodologia-desberdintasun handiak daudelako, eta informazioa une batean baino gehiagotan jaso delako.

**45. irudia.** Euskal Herriko eta Europako kultura-adierezleen alderaketa (%)




(1) **Iturria:** *Euskal Herriko kultura -ohiturei, -praktikei eta kontsumoari buruzko inkesta 2007-2008*, Kulturaren Euskal Behatokia

(2) **Iturria:** *Eurobarrometroa 67.1* , Eurostat, 2007

Azken urtebetean egindako kultura-ohituren datuen alderaketan Europako Batasunaren emaitzak gainditu ditu Euskal Herriak oinarrizko hiru adierazletan, hau da, zinemara joatean, liburuak irakurtzean, eta, azkenik, musika-kontzertuetara joatean. Alde txikia badago ere, Euskal Herriko biztanleek gainditu egin dute Europakoen parte-hartzea.

Bestalde, Europako Batasunean Euskal Herrian baino askoz maizago egiten diren bi ohitura daude, liburutegietara eta antzerkira joatea, alegia. Arte eszenikoetan daude alderik handienak; izan ere, Europako batezbestekoa Euskal Herrikoa baino hamar puntu handiagoa da.

# 3. IRAKURKETA ETA LIBURUTEGIAK



3.1. Sektorearen ikuspegi orokorra

3.2. Datu estatistikoen aukeraketa

# 3. IRAKURKETA ETA LIBURUTEGIAK

## 3.1. SEKTOREAREN IKUSPEGI OROKORRA

### Irakurketarako interesa

**Euskal Herri osoko biztanleek interes handia dute zinemara joateko.** Batez besteko balorazioa 10etik 7 da; kultura-jarduera horrek sortzen duen interesa aztertutako gainerako jardueren artean nabarmentzen da. Irakurketa-mota zehaztuta, interes gehiago agertzen da liburuak (6,7ko batezbestekoa) eta egunkariak irakurtzeko (6,6) aldizkariak irakurtzeko baino (4,9).

**Interesaren azterketa egitean eskuratutako datuak bat datoz irakurketa-ohiturei buruzko datuekin.** Heziketa-mailarik handiena duten pertsonek (8,1), helduek (7,6) eta emakumeek (7,3) dute irakurketarako interesik handiena, oro har. Hala ere, gizonezkoek interes pixka bat handiagoa dute egunkariak irakurtzeko (6,8, eta, emakumezkoak, berriz, 6,5), eta gazteenek aldizkariak irakurtzeko (5,8).

### Liburuak irakurtzea eta erostea

**Euskal Herriko biztanleen ia erdiek aisialdiari lotutako liburuak irakurri dituzte azken hilabetean,** eta %19,1ek lanari edo ikasketei lotutako liburuak irakurri ditu. Ipar Euskal Herrian irakurtzen da gehien (biztanleen %56,4k irakurri dute aisialdian azken hilabetean), ondoren Nafarroan (%47,7) eta EAEn (%45,7).

**Emakumezkoek, helduek, ikasketa-mailarik handiena dutenek eta hiriburuetako biztanleek irakurtzen dute gehien.** Emakumeen %50,3k irakurri du aisialdian azken hilabetean, eta gizonezkoen %43,7k. Adinaren arabera, helduen adin-taldeetakoek dute irakurtzeko ohitura gehien (35 eta 54 urte artekoek). Irakurtzeko ohitura duten pertsonen portzentajeak gora egiten du ikasketa-mailak gora egin ahala; unibertsitate-titulua duten pertsonen %68,3k du ohitura hori. Irakurtzeko ohitura handiagoa dute, halaber, hiriburuetako biztanleek (%53,2k irakurri du azken hilabetean).

**Euskal Herriko biztanleen erdiek 1,8 liburu irakurri dituzte, batez beste, azken hilabetean.** Biztanleen %47,1ek dio aisialdiari lotutako liburuak irakurri dituela azken hilabetean; 1,8 liburu irakurri dituzte, batez beste. Azpimarratzekoa da irakurtzeko ohitura dutenen %18,4k hilean 3 liburu edo gehiago irakurtzen dituela.

**Irakurle elebidunen herenak euskarazko liburuak irakurtzen ditu**; zehazki, azken hiruhilekoan zerbait irakurri duten biztanleen %36,8k. Nafarroako portzentajea handiagoa da (%45,4), Ipar Euskal Herrikoa %39,4koa, eta EAEkoa, berriz, %35,7koa. Elebidunen taldean, gazteenek irakurtzen dute gehien euskaraz (15 eta 24 urte arteko biztanleen %45,1ek).

**Azken hiruhilekoan zerbait irakurri dutenetatik liburuak erosi dituztenek 4 liburu erosi dituzte batez beste**. Talde horretako %37,9k 4 liburu edo gehiago erosi ditu.

**Denda txiki espezializatua dute gogokoen liburuak erosteko**. Biztanleen %56k denda txiki espezializatuetan erosten ditu liburuak. Ohitura hori sendoagoa da Nafarroan (%58,7k) eta EAEn (%56,6k) Ipar Euskal Herrian baino (%45,7k). Kate handien denda espezializatuetara joaten da %22,7; saltoki handietara %21,9, eta %19,4k, berriz, liburutegietatik hartzen ditu. Oso jende gutxik erabiltzen du Internet liburuak erosteko (biztanleen %3,6k).

## Egunkariak eta aldizkariak irakurtzea eta erostea

**Euskal Herriko biztanleen bi herenek egunkariak irakurtzeko ohitura du**. Zehazki, %65,4k irakurtzen ditu egunero edo ira egunero; aldizkarien irakurketa, berriz, asteburuetakoa da gehienbat (%20k asteburuetan soilik irakurtzen ditu aldizkariak). EAEn dago egunkariak irakurtzeko ohitura duten pertsona gehien (biztanleen %66,7).

**Gizonezkoek ohitura handiagoa dute egunkariak irakurtzeko emakumezkoek baino**. Gizonezkoen %71,2k du egunkariak irakurtzeko ohitura, eta emakumezkoen %59,9k. Adin-taldeen arabera ere aldeak daude; 45 eta 54 urte artekoek dituzte gogokoen argitalpen horiek. Ikasketa-mailaren arabera, irakurtzeko ohitura dutenen ehunekoak gora egiten du; unibertsitate-tituludun pertsonen %72,3 k dute irakurtzeko ohitura.

Hamar pertsonatik lauk dute aldizkariak irakurtzeko ohitura; ehuneko egonkorra da, egituraren aldagaiak aztertuz gero: emakumeek gizonezkoek baino pixka bat gehiago irakurtzen dituzte aldizkariak (emakumezkoen %41,3k eta gizonezkoen %39,3k); gazteetan (%46) eta unibertsitate-titulua dutenetan (%46,4) dago irakurtzeko ohitura dutenen portzentajerik handiena.

**Gizartearen arloko berriak interesatzen zaizkie gehien egunkariak irakurtzen dituztenei**; hala adierazi du gutxienez astean behin irakurtzen dituzten pertsonen %50,6k. Horren atzetik datoz kulturaren arloko berriak (%36), politikaren arlokoak (%35,8), kirolaren arlokoak (%32,4), eta, azkenik, ekonomiaren arlokoak (%30,2).

**Aldizkarietan, igandeetako gehigarriek sortzen dute interesik handiena**. Gutxienez hilean behin aldizkariak irakurtzen dituzten pertsonen %39,5ek adierazi du igandeetako gehigarriak direla interesgarrienak; horien atzean daude pentsa arrosako eta gizarte-kronikako aldizkariak (%26,8).

**Biztanle elebidunen herenak euskarazko egunkariak irakurtzen ditu; batzuek horiei ematen diete lehentasuna, eta besteek beste hizkuntza batzuetakoak ere irakurtzen dituzte**. Biztanleen %8,2k euskara hutseko egunkariak ditu nahien, eta %26k euskaraz eta gaztelaniaz edo frantsesez irakurtzen ditu.

**Erostea da idatzizko prentsa eskuratzeko modurik ohikoena (egunkariak eta aldizkariak)**. Hala ere, beste era batzuetara ere eskuratzen dira, hala nola tabernetan edo liburutegietan doan irakurrita (egunkariak irakurtzen dituztenen %29,9k eta aldizkariak irakurtzen dituztenen %26,4k) eta Internet bidez (egunkariak irakurtzen dituztenen %17,9k).

## Liburutegietara joatea

**Biztanleen %45,5ek liburutegietara joateko interes ertainetik hasi, eta oso altura artekoa dutela adierazi dute**; zerbitzu hori batere interesatzen ez zaiela esan dutenen portzentajea ere oso antzekoa da (%42,1). Polarizazio hori dela eta, Euskal Herriko osoko datuen batezbestekoa 10etik 3,8 da. EAEko biztanleen batezbestekoa apur bat handiagoa da (3,9) Nafarroakoa (3,7) eta Ipar Euskal Herrikoa baino (3,2).

**Ikasketa-mailarik handiena dutenek, emakumezkoek eta 35 eta 44 urte artekoek adierazi dute interesik handiena liburutegietarako**. Ikasketa-mailaren aldagaiak eragiten du alderik handiena; titulatuek dute interes gehien (5). Emakumezkoen batezbestekoa 4,1ekoa da, eta gizonezkoena, berriz, 3,5ekoa. Interesik handiena 35 eta 44 urte artekoen taldeak du (4,6).

**Euskal Herriko hamar biztanletik bi joan dira liburutegira azken hilabetean**, biztanleen %19,3, zehazki. Nafarroan, ohiko erabiltzaileen portzentajea handiagoa da (%25) Ipar Euskal Herrian (%21,3) eta EAEn baino (%17,5).

Nabarmentzekoa da emakumezkoak gizonezkoak baino gehiago joaten direla (emakumezkoen %20,7 eta gizonezkoen %17,8), eta elebidunak elebakarrak baino gehiago (elebidunen %23, eta elebakarren %17,9). Hiriburuetako biztanleek sarriago erabiltzen dituzte zerbitzu horiek (%23,3 azken hilabetean joan da).

**Liburutegietako ohiko erabiltzaileak hilean 5,6 aldiz joaten dira, batez beste, Euskal Herri osoan**. EAEn dago batezbestekorik handiena (6 aldiz), ondoren Nafarroan (5,3 aldiz) eta Ipar Euskal Herrian (3,5 aldiz). Joateko ohitura duten 15 eta 24 urte artekoak hilean 8,6 aldiz joaten dira.

**Liburutegi batera joateko arrazoi nagusia liburuak maileguan hartzea da**. Instalazio horietara joaten diren biztanleen %57,9 mailegu-zerbitzua erabiltzera joaten da. Bestalde, nabarmentzekoa da erabiltzaileen %20 irakurtzera joaten dela, eta beste horrenbeste joaten dira ikastera ere.

**Liburutegi-zerbitzuekin gogobetetze-maila handia dute**. Erabiltzaileen balorazioa 10etik 7,9 da. Hobetu daitezkeen alderdien artean aipatu dituzte funts gehiago jartzea (erabiltzaileen %11,5ek), zerbitzu eta erabilera-baldintza hobeak (%8,1) eta ekipamendu hobeak (%7,1).

## 3.2. DATU ESTATISTIKOEN AUKERAKETA

**46. irudia.** Pertsonak, irakurketarako interes-mailaren arabera (%)




**47. irudia.** Irakurketarako interes-maila, lurraldearen arabera (batezbestekoa)




**48. irudia.** Irakurketarako interes-maila, sexuaren arabera (batezbestekoa)




**49. irudia.** Irakurketarako interes-maila, adin-taldearen arabera (batezbestekoa)



**50. irudia.** Irakurketarako interes-maila, ikasketa-mailaren arabera (batezbestekoa)




**51. irudia.** Pertsonak, liburuak irakurtzeko ohituraren arabera (%)




**52. irudia.** Aisialdiko liburuak irakurtzeko ohitura duten pertsonak, lurradlearen, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren tamainaren arabera (%)




Liburu-irakurtzeko ohitura dutenak (azken hilabetean liburuak irakurri dituztenak)

**53. irudia.** Irakurtzeko ohitura duten pertsonak, hilabetean irakurtzen duten liburu-kopuruaren arabera (%)




Oinarria: Irakurtzeko ohitura dutenak (azken hilabetean aisialdiko liburuak irakurri dituztenak, biztanleen %47,1)

**54. irudia.** Pertsona elebidunak, euskarazko liburuen irakurketaren eta lurraldearen arabera (%)




Oinarria: Azken hiruhilekoan aisialdiari, lanari edo ikasketei lotutako libururen bat irakurri duten pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %66,6

**55. irudia.** Pertsona elebidunak, euskarazko liburuen irakurketaren eta sexuaren arabera (%)




Oinarria: Azken hiruhilekoan aisialdiari, lanari edo ikasketei lotutako libururen bat irakurri duten pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %66,6

**56. irudia.** Pertsona elebidunak, euskarazko liburuen irakurketaren eta adin-taldearen arabera (%)




Oinarria: Azken hiruhilekoan aisialdiari, lanari edo ikasketei lotutako libururen bat irakurri duten pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %66,6

**57. irudia.** Pertsonak, azken hiruhilekoan erositako liburu-kopuruaren arabera (%)




Oinarria: Azken hiruhilekoan libururen bat irakurri duten pertsonak, eta epe horretan libururen bat erosi dutenak, biztanleen %44,8

**58. irudia.** Pertsonak, liburuak erosteko lekuaren eta lurraldearen arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Aisialdiari, lanari edo ikasketei lotutako liburuak irakurtzen dituzten pertsonak, biztanleen %82,9

**59. irudia.** Pertsonak, egunkariak eta aldizkariak irakurtzeko ohituraren arabera (%)



**60. irudia.** Egunkariak irakurtzeko ohitura duten pertsonak, lurraldearen, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren tamainaren arabera (%)




Egunkariak irakurtzeko ohitura dutenak (astean hiru edo lau egunetan edo egunero edo ia egunero egunkariak irakurtzen dituzten pertsonak)

**61. irudia.** Aldizkariak irakurtzeko ohitura duten pertsonak, lurraldearen, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren tamainaren arabera (%)




Aldizkariak irakurtzeko ohitura dutenak (astean behin gutxienez aldizkariak irakurtzen dituzten pertsonak)

**62. irudia.** Egunkariak irakurtzen dituzten pertsonak, interes gehien eragiten dieten berrien arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Astean behin gutxienez egunkariak irakurtzen dituzten pertsonak, biztanleen %85,6

**63. irudia.** Aldizkariak irakurtzen dituzten pertsonak, lehentasunen arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Hilean behin, gutxienez, aldizkariak irakurtzen dituzten pertsonak, biztanleen %58,2

**64. irudia.** Pertsona elebidunak, egunkariak eta aldizkariak irakurtzeko nahiago duten hizkuntzaren




(1) Oinarria: Astean behin, gutxienez, egunkariak irakurtzen dituzten pertsonak, biztanle elebidunen %88,7
(2) Oinarria: Hilean behin, gutxienez, aldizkariak irakurtzen dituzten pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %61,6

**65. irudia.** Pertsonak, egunkariak eta aldizkariak eskuratzeko moduaren arabera (erantzun ugari) (%)




(1) Oinarria: Astean behin, gutxienez, egunkariak irakurtzen dituzten pertsonak, biztanleen %85,6
(2) Oinarria: Hilean behin, gutxienez, aldizkariak irakurtzen dituzten pertsonak, biztanleen %58,2

**66. irudia.** Pertsonak, liburutegiek sortzen dieten interes-mailaren arabera (%)




**67. irudia.** Liburutegiek sortzen duten interes-maila, lurraldearen arabera (batezbestekoa)




**68. irudia.** Liburutegiek sortzen duten interes-maila, sexuaren arabera (batezbestekoa)




**69. irudia.** Liburutegiek sortzen duten interes-maila, adin-taldearen arabera (batezbestekoa)




**70. irudia.** Liburutegiek sortzen duten interes-maila, ikasketa-mailaren arabera (batezbestekoa)



**71. irudia.** Pertsonak, liburutegietara/mediateketara joateko ohituraren arabera (%)




**72. irudia.** Liburutegietara/mediateketara joateko ohitura duten pertsonak, lurraldearen, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren tamainaren arabera (%)




Joateko ohitura dutenak (azken hilabetean liburutegi/mediateka batera joan diren pertsonak)

**73. irudia.** Liburutegietara/mediateketara joateko ohitura duten pertsonak, bisita-kopuruaren arabera (%)







**Batezbestekoa: 5,6**

Oinarria: Joateko ohitura dutenak (azken hilabetean liburutegi/mediateka batera joan diren pertsonak, biztanleen %19,3)

**74. irudia.** Liburutegietara/mediateketara joateko ohitura duten pertsonak, bisita-kopuruaren eta adin-taldearen arabera (%)




Oinarria: Joateko ohitura dutenak (azken hilabetean liburutegi/mediateka batera joan diren pertsonak, biztanleen %19,3)

**75. irudia.** Pertsonak, liburutegietara/mediateketara joateko arrazoien eta lurraldearen arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Liburutegira joaten diren pertsonak, biztanleen %39,1

**76. irudia.** Pertsonak, liburutegietara/mediateketara joateko hobetu behar direla uste duten eta lurraldearen arabera (erantzun ugari) (%)




**77. irudia.** Pertsonak, liburutegiekin/mediatekekin duten gogobetetze-mailaren eta lurraldearen arabera (%)




Oinarria: Liburutegira joaten diren pertsonak, biztanleen %39,1

# 4. MUSEOAK ETA ARTE-ZENTROAK



4.1. Sektorearen ikuspegi orokorra

4.2. Datu estatistikoen aukeraketa

# 4. MUSEOAK ETA ARTE-ZENTROAK

## 4.1. SEKTOREAREN IKUSPEGI OROKORRA

### Museoek eta arte-zentroek sortzen duten interesa

**Biztanleen ia %60ri interes ertainetik hasi eta oso handira artekoa eragiten diote museoek eta erakusketa-aretoek**. Arte-galeriei dagokienez, %50etik beherakoa da interesa (%49,2, zehazki). Hala ere, batezbesteko interesa 10etik 5 baino beheraxeago dago beti: museoetarako interesa 4,8 da; erakusketetarako interesa 4,6 eta arte-galerietarako interesa, berriz, 4.

**Euskal Herriko interesaren batezbestekoak gainditzen dituzte pertsona helduenek eta unibertsitate-ikasketak dituztenenek**. Alderik handiena ikasketa-mailaren arabera zehazten da; unibertsitate-heziketa duten pertsonek dute interes gehien. Bestalde, 35 eta 44 urte arteko pertsonek ematen dituzte baliorik handienak (museoek 5,3; erakusketa-aretoek 5,1 eta arte-galeriek 4,4).

### Museoetara eta arte-zentroetara joateko ohitura

**Biztanleen %37,5 joan da museo batera azken urtebetean**. Galeriek eta erakusketa-aretoek biztanleen %22,4 erakarri dute epe horretan bertan.

**Pertsonarik gazteenak eta helduenak joaten dira gutxien museoetara; unibertsitate-ikasketak dituztenak eta hiriburuetako biztanleak, berriz, gehien**. Azken hiruhilekoan 65 urtetik gorakoen %12,6 eta 15 eta 24 urte artekoen %15,1 soilik joan da museo batera. Hiriburuetako biztanleen %22,1 joan da. Bestalde, unibertsitate-ikasketak dituztenetatik %31,1 joan da museo batera azken hiruhilekoan.

**Euskal Herriko hamar biztanletik bat joan da arte-galerietara edo erakusketetara azken hiruhilekoan.** Portzentaje hori bikoitza da ia unibertsitate-ikasketak dituztenen artean (%19,2) eta handiagoa da hiriburuetan ere (%14,8).

**Museoetara joateko ohitura duten gehienak behin joan dira azken hiruhilekoan**. Bisitarien %60,2 behin bakarrik joan da, eta %22,5, berriz, bi aldiz. Maiztasun berarekin joan dira arte-galerietara eta erakusketetara: %60,5 behin joan da, eta %20,2, berriz, bi aldiz.

**Ipar Euskal Herriko eta Nafarroako biztanleak joaten dira gehien haien lurraldetik kanpo museoak ikustera**. Ipar Euskal Herrian ohitura hori dutenen %70,8 eta Nafarroakoen %59,7 joaten dira lurraldetik kanpoko museoetara. EAEn kontrakoa gertatzen da; bisita gehienak norberaren hiriko museoetara egiten dira (%39), edo, bestela, norberaren lurraldekoetara (%27,5).

**Arte-museoetara egiten da lau bisitatik hiru**; azken hiruhilekokoen %74,7, zehazki. Alde handia dago museo espezializatuetara (%8,4) eta arkeologiako eta historiakoetara (%8) egiten diren bisita-kopuruetara.

**Joateko ohitura dutenak oso gogobeteta daude museoekin**. Zentro horien Euskal Herri osoko batezbesteko balorazioa 10etik 8 da.

## 4.2. DATU ESTATISTIKOEN AUKERAKETA

**78. irudia.** Pertsonak, museoek eta arte-zentroek sortzen dieten interes-mailaren arabera (%)




**79. irudia.** Museoek eta arte-zentroek sortzen duten interes-maila, lurraldearen arabera (batezbestekoa)




**80. irudia.** Museoek eta arte-zentroek sortzen duten interes-maila, sexuaren arabera (batezbestekoa)




**81. irudia.** Museoek eta arte-zentroek sortzen duten interes-maila, adin-taldearen arabera (batezbestekoa)



**82. irudia.** Museoek eta arte-zentroek sortzen duten interes-maila, ikasketa-mailaren arabera (batezbestekoa)




**83. irudia.** Pertsonak, museoetara, arte-galerietara eta erakusketetara joateko ohituraren arabera (%)




**84. irudia.** Museoetara joateko ohitura duten pertsonak, lurraldearen, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren tamainaren arabera (%)




Joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan museoetara joan diren pertsonak)

**85. irudia.** Arte-galerietara eta erakusketetara joateko ohitura duten pertsonak, lurraldearen, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren tamainaren arabera (%)




Joateko ohitura dutenak (arte-galerietara eta erakusketetara joan direnak azken hiruhilekoan)

**86. irudia.** Museoetara, arte-galerietara eta erakusketetara joateko ohitura duten pertsonak, bisita-kopuruaren arabera (%)




Oinarria: Joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan museo batera joan diren pertsonak, biztanleen %17,3)




Oinarria: Joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan arte-galerietara eta erakusketetara joan diren pertsonak, biztanleen %10,4)

**87. irudia.** Museoetara egindako bisitak, lekuaren eta lurraldearen arabera (%)




Oinarria: Joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan museo batera joan diren pertsonak, biztanleen %17,3)

**88. irudia.** Museoetara egindako bisitak, tipologiaren eta lurraldearen arabera (%)




Oinarria: Joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan museo batera joan diren pertsonak, biztanleen %17,3)

**89. irudia.** Museoetara joateko ohitura duten pertsonak, gogobetetze- mailaren eta lurraldearen arabera (%)




Oinarria: Joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan museo batera joan diren pertsonak, biztanleen %17,3)

# 5. MUSIKA



5.1. Sektorearen ikuspegi orokorra

5.2. Datu estatistikoaren aukeraketa

# 5. MUSIKA

## 5.1. SEKTOREAREN IKUSPEGI OROKORRA

### Musikarako interesa

**Musikak interes handia eragiten die Euskal Herriko biztanleei**; 10etik 7,3ko batezbesteko balorazioa du. Nabarmentzekoa da biztanleen %73,2k musikarako interes handia edo oso handia duela adierazi duela. Zuzeneko musika entzutera joateko interesa 6 puntukoa da gaur egungo musikaren kasuan, eta 5 puntukoa musika klasikoko kontzertuen kasuan.

**Gaur egungo musikako kontzertuak gazteei interesatzen zaizkie gehien; musika klasikokoak, berriz, helduenei**. Gaur egungo musikako kontzertuetara joateko interesak behera egiten du adinean aurrera egin ahala (7,8ko batezbestekoa biztanle gazteenen artean, eta 4,1ekoa 64 urtetik gorakoen artean). Kontrakoa gertatzen da musika klasikoko kontzertuekin; interesak gora egiten baitu adinean aurrera egin ahala (3,6ko batezbestekoa gazteenen artean, eta 5,6koa 64 urtetik gorakoen artean).

### Musika entzuteko ohitura

**Euskal Herriko biztanleen hiru laurdenek musika entzuteko ohitura du**. Erdiek baino gehiagok (%56,8) egunero edo ia egunero entzuten dute, eta %18,2k, berriz, astero. Ipar Euskal Herrian dago entzuteko ohitura dutenen portzentajerik handiena (%85,3); EAEn (%73,3) eta Nafarroan (%76,1), berriz, Euskal Herri osoko portzentajearen (%75) antzekoak daude.

**Musika entzuteko ohitura finkatuta dago gazteen artean**; 15 eta 24 urte artekoen %95,8k du ohitura hori, eta 25 eta 34 urte artekoen %89,5ek. Adinean aurrera egin ahala, gero eta gutxiagok dute ohitura hori: 64 urtetik gorakoetan %52,7 baino ez dira.

**Musika entzuteko ohitura dutenek astean 9,2 ordu ematen dituzte horretan**. Nabarmentzekoa da musika entzuteko ohitura dutenen erdiek baino gehiagok (%51,2) astean 6 orduz baino gehiagoz entzuten dutela. Ipar Euskal Herriko biztanleek ematen dute denbora gehien musika entzuten (11 ordu astean, batez beste), eta EAEkoek gutxien (astean 8,7).

**Musika entzuteko ohitura dutenen artean, 15 eta 34 urte arteko pertsonek ematen dute denbora gehien horretan**; batezbestekoak 11 ordutik gorakoak dira.

**MP3 erreproduzitzaileak erabiltzen dituzte 15 eta 24 urte arteko pertsonen erdiek baino gehiagok**. Bestela, biztanleek, oro har, ohiko bideak erabiltzen dituzte, esaterako, irratia (%57,7k) edo musika-ekipoa (%59,6k). Gazteenek, ordea, MP3a erabiltzen dute gehien (%55,9k). Horren ondoren, musika-ekipoa (%52,6k) eta ordenagailua erabiltzen dituzte (%47,9k, eta biztanle guztiak kontuan hartuta, portzentajea %20,1ekoa da.).

**Etxean eta autoan entzuten da gehien musika**. Musika entzuteko ohitura duten hamar pertsonatik ia bederatzik etxean entzuten dute, eta hamarretik lauk baino gehiagok, berriz, autoan. Euskarri berrien autonomiaz gozatzen dute gazteenek: hamarretik lauk kalean entzuten dute.

**Pop-rocka da gehien entzuten den musika-estiloa**. Musika entzuteko ohitura duten pertsonen %58,5ek estilo horretakoa entzuten du. Hamar pertsonatik hiruk musika klasikoa hautatu dute; helduenen artean, hamarretik hiruk hautatu dute. Horien ondoren, autore-musika (%18,7 dira zaleak) eta euskal musika tradizionala (%18,4 dira zaleak).

**Hamar pertsona elebidunetik zortzik euskal musika entzuten dute**. Ipar Euskal Herrian, ia elebidun guztiek entzuten dute euskal musika (%96,6), Nafarroan %87,8k eta, azkenik, EAEn, %79k. Adinaren arabera, 45 eta 54 urte arteko elebidunek entzuten dute gehien euskal musika (%86,7).

## Musika erosteko ohitura

**Euskal Herriko hamar biztanletik hiruk erosi dute musika azken hiruhilekoan**. Azken hiruhilekoan musika erosi duten biztanleen portzentajea handiagoa da Ipar Euskal Herrian, eta txikiagoa Nafarroan (%28,2). Biztanleen %45,1ek ez du inoiz edo ia inoiz musikarik erosten.

**Gizonezkoek, elebidunek, unibertsitate-ikasketak dituztenek eta helduek erosten dute gehien**. Gizonezkoen %32,9k eta emakumezkoen %28,6k erosi du musika azken hiruhilekoan. Hizkuntzari erreparatuta, elebidunen %34,5ek erosi du musika, eta elebakarren %29,4k. Aldeak handiagoak dira heziketa-mailaren arabera: unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonen %42,5ek eta ikasketarik gabekoen %8,9k erosi du musika azken hiruhilekoan. Helduen %38,41ek esan du musika erosi duela azken hiruhilekoan.

**Musika erosi duten pertsonen erdiek pop-rocka erosi dute**; datu hori bat dator gustuko musika-estiloak hautatzean agertutakoekin. %16,9k musika klasikoa erosi du, %14,5ek euskal musika tradizionala, eta %12,4k autore-musika. Gazteenek pop-rocka erosten dute (%68), eta helduenek nahiago dute musika klasikoa (%55,2).

**Saltoki handietan erosten da gehienbat musika; horien atzetik daude denda espezializatuak**. Saltoki handietara %59,6 joaten da, eta denda espezializatuetara, berriz, %46,4. Musika-erosleen %3,9k soilik erabiltzen du Internet. Saltoki handietako erosketak nabarmentzen dira EAEn (%62,6), eta Ipar Euskal Herrian, berriz, denda espezializatuetan erosten da gehien (%53,5).

**Musika erosten duten hamar pertsona elebidunetik seik euskal musika erosi dute**. Nafarroan, %66,9k erosi du, EAEn %62,5ek, eta Ipar Euskal Herrian, berriz, %55,3k. Adinari erreparatuta, 45 eta 54 urte artekoek erosten dute gehien (%70,1).

## Kontzertuetara joateko ohitura

**Euskal Herrian, biztanleen %17,4 joan da kontzerturen batera azken hiruhilekoan**. Nafarroako biztanleak nabarmentzen dira (%21,1), atzetik dute EAE (%16,6), eta, ondoren, Ipar Euskal Herria (%15,6).

**Adinaren eta ikasketa-mailaren araberakoa da kontzertuetara joateko ohitura**. Azken hiruhilekoan 15 eta 24 urteko pertsonen %33,9 joan da kontzerturen batera. Heziketa-mailarik handiena dutenak (%24,3) eta elebidunak ere (%23,6) besteak baino gehiago joaten dira.

**Kontzertuetara joateko ohitura duten lautik bat hiru kontzertutara edo gehiagotara joan da azken urtebetean**. Hala ere, joateko ohitura dutenak kontzertu bakarrera joan dira, oro har, azken urtebetean (%53,1); Ipar Euskal Herrian handiagoa da portzentajea (%71,1).

**Pop-rockak biltzen du jende gehien joateko ohitura dutenen artean**. Kontzertuetara joaten direnen ia erdiak adierazi du pop-rockeko kontzertuak ikusi dituela (15-34 urte artekoetan, ehunekoa ia %72koa da), eta musika klasikoko kontzertuak ikusi dituela, berriz, zaleen %29,1ek adierazi du.

**Denbora falta eta kostu ekonomikoa dira kontzertu gehiagotara ez joateko arrazoi nagusiak**. Gehiago joan nahiko luketen pertsonek esan dute gehiago ez joateko arrazoi nagusiak denbora falta (%43,6) eta kostu ekonomikoa (%41,4) direla.

**Azken hiru hilabeteetan kontzertuetara joan diren elebidunen %67,6 euskal musikako kontzertuetara joan da**. Ipar Euskal Herriko portzentajea handiagoa da (%86,9), Nafarroakoa %76,6koa, eta EAEkoa, berriz, %64,6koa. Adinaren arabera, 25 eta 34 urteko elebidunak joaten dira gehien euskal musikako kontzertuetara (%73,5).

.

## 5.2. DATU ESTATISTIKOAREN AUKERAKETA

**90. irudia.** Pertsonak, musikak sortzen dien interes-mailaren arabera (%)




**91. irudia.** Musikak sortzen duen interes-maila, lurraldearen arabera (batezbestekoa)




**92. irudia.** Musikak sortzen duen interes-maila, sexuaren arabera (batezbestekoa)



**93. irudia.** Musikak sortzen duen interes-maila, adin-taldearen arabera (batezbestekoa)




**94. irudia.** Musikak sortzen duen interes-maila, ikasketa-mailaren arabera (batezbestekoa)




**95. irudia.** Pertsonak, musika entzuteko ohituraren arabera (%)



**96. irudia.** Musika entzuteko ohitura duten pertsonak, lurraldearen, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren tamainaren arabera (%)




Musika entzuteko ohitura duten pertsonak (musika egunero, ia egunero edo astero entzuten duten pertsonak)

**97. irudia.** Musika entzuteko ohitura duten pertsonak asteko ordu-kopuruaren eta lurraldearen arabera (%)




Oinarria: Musika entzuteko ohitura duten pertsonak (musika egunero, ia egunero edo astero entzuten duten pertsonak, biztanleen %75)

**98. irudia** Musika entzuteko ohitura duten pertsonak, asteko ordu-kopuruaren eta adin-taldearen arabera (%




Oinarria: Musika entzuteko ohitura duten pertsonak (musika egunero edo ia egunero entzuten duten pertsonak, biztanleen %75)

**99. irudia.** Musika entzuteko ohitura duten pertsonak, erabiltzen dituzten baliabideen arabera (erantzun ugari) (%




Oinarria: Musika entzuteko ohitura duten pertsonak (musika egunero, ia egunero edo astero entzuten duten pertsonak, biztanleen %75)

**100. irudia.** Musika entzuteko ohitura duten pertsonak, erabiltzen dituzten baliabideen eta adin-taldearen arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Musika entzuteko ohitura duten pertsonak (musika egunero, ia egunero edo astero entzuten duten pertsonak, biztanleen %75)

**101. irudia.** Musika entzuteko ohitura duten pertsonak, entzuten duten lekuaren arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Musika entzuteko ohitura duten pertsonak (musika egunero, ia egunero edo astero entzuten duten pertsonak, biztanleen %75)

**102. irudia.** Musika entzuteko ohitura duten pertsonak, entzuten duten lekuaren eta adin-taldearen arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Musika entzuteko ohitura duten pertsonak (musika egunero, ia egunero edo astero entzuten duten pertsonak, biztanleen %75)

**103. irudia.** Musika entzuteko ohitura duten pertsonak, lehentasunen arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Musika entzuteko ohitura duten pertsonak (musika egunero, ia egunero edo astero entzuten duten pertsonak, biztanleen %75)

**104. irudia.** Musika entzuteko ohitura duten pertsonak, lehentasunen eta adin-taldearen arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Musika entzuteko ohitura duten pertsonak (musika egunero, ia egunero edo astero entzuten duten pertsonak, biztanleen %75)

**105. irudia.** Pertsona elebidunak, euskal musika entzutearen eta lurraldearen arabera (%)




Oinarria: Musika entzuteko ohitura duten pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %78,7

**106. irudia.** Pertsona elebidunak, euskal musika entzutearen eta sexuaren arabera (%)




Oinarria: Musika entzuteko ohitura duten pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %78,7

**107. irudia.** Pertsona elebidunak, euskal musika entzutearen eta adin-taldearen arabera (%)




Oinarria: Musika entzuteko ohitura duten pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %78,7

**108. irudia.** Pertsonak, musika erosteko ohituren arabera (%)




**109. irudia.** Musika erosteko ohitura duten pertsonak, lurraldearen, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren tamainaren arabera (%)




Musika erosteko ohitura duten pertsonak (azken hiruhilekoan musika erosi duten pertsonak)

**110. irudia.** Pertsonak, erosten duten musika-motaren arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Noizbait musika erosi duten pertsonak, CDetan edo beste euskarri batzuetan, biztanleen %50,3

**111. irudia.** Personas según el tipo de música que compran por grupos de edad (%)




Oinarria: Noizbait musika erosi duten pertsonak, CDetan edo beste euskarri batzuetan, biztanleen %50,3

**112. irudia.** Pertsonak, musika erosten duten lekuaren eta lurraldearen arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Noizbait musika erosi duten pertsonak, CDetan edo beste euskarri batzuetan, biztanleen %50,3

**113. irudia.** Pertsonak, musika erosten duten lekuaren eta adin-taldearen arabera (%)




Oinarria: Noizbait musika erosi duten pertsonak, CDetan edo beste euskarri batzuetan, biztanleen %50,3

**114. irudia.** Pertsona elebidunak, euskal musikaren erosketen eta lurraldearen arabera (%)




Oinarria: Noizbait musika erosi duten pertsona elebidunak, CDetan edo beste euskarri batzuetan, biztanle elebidunen %55,7

**115. irudia.** Pertsona elebidunak, euskal musikaren erosketen eta sexuaren arabera (%)




Oinarria: Noizbait musika erosi duten pertsona elebidunak, CDetan edo beste euskarri batzuetan, biztanle elebidunen %55,7

**116. irudia.** Pertsona elebidunak, euskal musikaren erosketen eta adin-taldearen arabera (%)




Oinarria: Noizbait musika erosi duten pertsona elebidunak, CDetan edo beste euskarri batzuetan, biztanle elebidunen %55,7

**117. irudia.** Persona, musika-kontzertuetara joateko ohituren arabera (%)




**118. irudia.** Musika-kontzertuetara joateko ohitura duten pertsonak, lurraldearen, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren tamainaren




Musika-kontzertuetara joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan musika-kontzertu batera joan diren pertsonak)

**119. irudia.** Kontzertuetara joateko ohitura duten pertsonak, azken hiruhilekoko kontzertu-kopuruaren arabera (%)




Oinarria: Musika-kontzertuetara joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan kontzertuetara joan diren pertsonak, biztanleen %17,4)

**120. irudia.** Personas que asisten habitualmente a conciertos según el tipo de música de los conciertos a los que acuden (%)




Oinarria: Musika-Kontzertuetara joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan kontzertuetara joan diren pertsonak, biztanleen %17,4)

**121. irudia.** Personas que asisten habitualmente a conciertos según el tipo de música de los conciertos a los que acuden por grupos de edad (%)




Oinarria: Musika-kontzertuetara joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan kontzertuetara joan diren pertsonak, biztanleen %17,4)

**122. irudia.** Pertsonak, kontzertu gehiagotara ez joateko arrazoien eta lurraldearen arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Kontzertu gehiagotara joatea gustatuko litzaieken pertsonak, joateko ohitura dutenen %78,5

**123.irudia.** Euskal musikako kontzertuetara joaten diren pertsona elebidunak, lurraldearen arabera (%)




Oinarria: Azken hiruhilekoan kontzertuetara joan diren pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %23,6

**124. irudia.** Euskal musikako kontzertuetara joaten diren pertsona elebidunak, sexuaren arabera (%)




Oinarria: Azken hiruhilekoan kontzertuetara joan diren pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %23,6

**125. irudia.** Euskal musikako kontzertuetara joaten diren pertsona elebidunak, adin-taldearen arabera (%)




Oinarria: Azken hiruhilekoan kontzertuetara joan diren pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %23,6

# 6. IKUS-ENTZUNEZKOAK



6.1. Sektorearen ikuspegi orokorra

6.2. Datu estatistikoen aukeraketa





# 6. IKUS-ENTZUNEZKOAK

## 6.1. SEKTOREAREN IKUSPEGI OROKORRA

### Telebista

**Euskal Herrian telebista ikusteko ohitura dutenek 2,6 orduz ikusten dute, batez beste, lanegunetan**. Asteburuari erreparatuta, larunbatetan 2,4 orduz ikusten dute batez beste, eta igandeetan, berriz, 2,5 orduz. Asteburu eta jaiegunetan muturreko portaerak daude: alde batetik, kontsumo-maila altuak daude (lanegunetan, %28,9k 3 eta 5 ordu artean ikusten du, larunbatetan %33,8k, eta igande eta jaiegunetan %35,8k), eta, bestetik, kontsumo-maila oso txikiak (lanegunetan %4,3k ez dute telebistarik ikusten, edo ordubete baino gutxiagoz ikusten dute, larunbatetan %8,9k, eta igande eta jaiegunetan %9,1ek).

**Adineko pertsonek ematen dute denbora gehien telebista ikusten**. Telebista ikusteko ohitura duten 64 urtetik gorako pertsonek lanegunetan 3,4 orduz ikusten dute, batez beste, 3 orduz larunbatetan, eta 2,8 orduz igande eta jaiegunetan. Gazteek (15 eta 24 urte artekoek) eta 35 eta 44 urte arteko helduek ematen dute denbora gutxien jarduera horretan (2,2 ordu lanegunetan).

**Telebistan, albistegiak dituzte gustukoen**. Telebista ikusten dutenen %75,3k aipatu ditu albistegiak gustukoen dituen hiru programa-moten artean. Bigarren eta hirugarren lekuan fikzioa dago: filmak (%48,7) eta serieak (%41,2). Nabarmentzekoa da biztanleen %3,7k soilik aipatu dituela kulturaren arloko programak hiru gustukoenen artean.

**Sexuaren araberako aldeak kirolak eta serieak aztertzean agertzen dira nabarmenen**. Serieak emakumezkoen gustukoenetakoak dira (%48,6), gizonezkoen%33,5ek baino ez ditu hautatu, ordea. Kirolak, berriz, gizonezkoek aipatu dituzte gehien (%38,5); emakumezkoen %7,4k baino ez.

**Gazteek maizago erabiltzen dute telebista denbora-pasa gisa; helduek eta adinekoek, berriz, nahigo dituzte eduki informatiboak**. Hona hemen zenbait adibide: adin-talde guztietan albistegiak %72k baino gehiagok aipatu dituzte, eta gazteen %46,8k baino ez; 45 eta 64 urte bitartekoetan, dokumentalak %34k baino gehiagok aipatu dituzte gustukoenen artean, eta gazteenen %13,5ek baino ez. Halaber, 15 eta 24 urte arteko gazteek soilik hautatu dituzte serieak (%73,9) eta filmak (%50) albistegiak baino lehen (%46,8).

## Irratia

**Irratia entzuteko ohitura dutenek lanegunetan entzuten dute gehien, 2,7 ordu**, batez beste. Larunbatetan, 1,8 orduz entzuten dute batez beste, eta igande eta jaiegunetan, berriz, 1,7 orduz. Entzuteko ohituren xehetasunak aztertuta, lanegunetako jarduera dela ikusten da: irratia entzuten ez dutela diotenak %24,3 dira igandeetan, %20,5 larunbatetan, eta %1 soilik lanegunetan. Nabarmentzekoa da Ipar Euskal Herrian irratia entzuten 4 ordu ematen direla, batez beste, lanegunetan.

**Nagusienek ematen dute denbora gehien irratia entzuten**. Irratia entzuteko ohitura duten 64 urtetik gorako pertsonek entzuten dute gehien (lanegunetan 3,1 orduz), eta gazteenek gutxien (lanegunetan 2 orduz).

**Albistegiak eta musika dituzte gustukoen irratia entzuteko ohitura dutenek. Adinaren arabera, gustu desberdinak ageri dira**. Musika eta albistegiak gustukoen dituztenen artean, aldeak daude: zenbat eta helduago, orduan eta interes handiagoa eduki informatiborako (%86,5), eta, gazteei, berriz, interes handiagoa eragiten die musikak (%88,2). Kirolak gizonezkoei interesatzen zaizkie batik bat (%26,2).

## Euskarazko telebista eta irratia

**Telebista-ikusle elebidunen %78k euskarazko telebista ikusten du lanegunetan**. Horietako gehienek (%43,1ek) telebista ikusten ematen duen denboraren %25-50 euskarazko telebista ikusten ematen dute. Lanegunetan gehiago ikusten da asteburuetan edo jaiegunetan baino.

**Euskarazko irratiaren entzuleen kontsumo-eredua berezia da.** Alde batetik, aste barruan entzule izan daitezkeen 10etik 3k, eta, jaiegunetan, erdiek, ez dute entzuten euskarazko irratirik. Horiez gain, entzule leialak ere badaude; 10 entzule elebidunetatik ia 2k euskarazko irratia soilik entzuten dute aste barruan.

## 6.2. DATU ESTATISTIKOEN AUKERAKETA

**126. irudia.** Telebista ikusten emandako ordu-kopurua (%)




Oinarria: Telebista ikusteko ohitura duten pertsonak, biztanleen %92,8

**127. irudia.** Telebista ikusten emandako ordu-kopurua, lurradearen arabera (batezbestekoa)




Oinarria: Telebista ikusteko ohitura duten pertsonak, biztanleen %92,8

**128. irudia.** Telebista ikusten emandako ordu-kopurua, sexuaren arabera (batezbestekoa)




Oinarria: Telebista ikusteko ohitura duten pertsonak, biztanleen %92,8

**129. irudia.** Telebista ikusten emandako ordu-kopurua, adin-taldearen arabera (batezbestekoa)




Oinarria: Telebista ikusteko ohitura duten pertsonak, biztanleen %92,8

**130. irudia.** Telebista ikusten emandako ordu-kopurua, hizkuntza-gaitasunaren arabera (batezbestekoa)




Oinarria: Telebista ikusteko ohitura duten pertsonak, biztanleen %92,8

**131. irudia.** Pertsonak, telebista-programetako lehentasunen eta sexuaren arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Telebista ikusteko ohitura duten pertsonak, biztanleen %92,8

**132. irudia.** Pertsonak, telebista-programetako lehentasunen eta adin-taldearen arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Telebista ikusteko ohitura duten pertsonak, biztanleen %92,8

**133. irudia.** Irratia entzuten emandako ordu-kopurua (%)




Oinarria: Irratia entzuteko ohitura duten pertsonak, biztanleen %77,4

**134. irudia.** Irratia entzuten emandako ordu-kopurua, lurradearen arabera (batezbestekoa)




Oinarria: Irratia entzuteko ohitura duten pertsonak, biztanleen %77,4

**135. irudia.** Irratia entzuten emandako ordu-kopurua, sexuaren arabera (batezbestekoa)




Oinarria: Irratia entzuteko ohitura duten pertsonak, biztanleen %77,4

**136. irudia.** Irratia entzuten emandako ordu-kopurua, adin-taldearen arabera (batezbestekoa)




Oinarria: Irratia entzuteko ohitura duten pertsonak, biztanleen %77,4

**137. irudia.** Irratia entzuten emandako ordu-kopurua, hizkuntza-gaitasunaren arabera (batezbestekoa)




Oinarria: Irratia entzuteko ohitura duten pertsonak, biztanleen %77,4

**138. irudia.** Pertsonak, irrati-programetako lehentasunen eta sexuaren arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Irratia entzuteko ohitura duten pertsonak, biztanleen %77,4

**139. irudia.** Pertsonak, irrati-programetako lehentasunen eta adin-taldearen arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Irratia entzuteko ohitura duten pertsonak, biztanleen %77,4

**140. irudia.** Biztanle elebidunek euskarazko telebistak ikusten ematen duten denbora (%)




Oinarria: Telebista ikusteko ohitura duten pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %91,8

**141. irudia.** Biztanle elebidunek euskarazko irratiak entzuten ematen duten denbora (%)




Oinarria: Irratia entzuteko ohitura duten pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %77,4

# 7. ZINEMA



7.1. Sektorearen ikuspegi orokorra

7.2. Datu estatistikoen aukeraketa

# 7. ZINEMA

## 7.1. SEKTOREAREN IKUSPEGI OROKORRA

### Zinemarako interesa

**Zinemarako interesa 10etik 6koa da Euskal Herri osoan; EAEn pixka bat handiagoa Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian baino**. Nabarmentzekoa da biztanleen %53,3k 10etik 7 eta 10 arteko balorazioa ematen diola zinemarako duen interesari.

**Gazteei, unibertsitate-ikasketak dituztenei eta emakumezkoei interesatzen zaie gehien zinema**. Interesak behera egiten du adinean aurrera egin ahala (gazteetan 7,4ko batezbestekoa du, eta 64 urtetik gorakoetan, berriz, 4,5ekoa). Bestalde, heziketa-maila zenbat eta handiagoa izan, interesa orduan eta handiagoa da; 7 puntukoa da unibertsitate-ikasketak dituztenen artean. Emakumezkoek gizonezkoek baino balorazio hobea ematen diete (emakumezkoek 6,2 eta gizonezkoek 5,9).

### Zinemara joateko ohitura

**Euskal Herri osoan, hamar biztanletik lau maiz joaten dira zinema-aretoetara (zehazki, biztanleen %41 joan da azken hiruhilekoan)**. Nafarroan zaletasun handiagoa ageri da (%45,8) EAEn (%40) eta Ipar Euskal Herrian baino (%38,1). Deigarria da, bestalde, antzeko portzentajea, edo, bestela esanda, hamar pertsonatik lau ez joatea zinemara (%27 ez da inoiz edo ia inoiz joaten, eta %17,6 ez da joan urtebete baino gehiagoan).

**15 eta 24 urte arteko lau gaztetik hiru zinemara joan da azken hiruhilekoan**. Gazteenaren aldean txikia da 64 urtetik gorakoen portzentajea (%14,8). Alde handiak daude, halaber, unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonen (%57,6k dute joateko ohitura) eta ikasketarik ez dutenen artean (%14,4). Udalerri handienetako, hiriburuetako eta udalerri txikietako ehunekoek alde txikiak dituzte, baina azpimarratzekoak (hiriburuetan %45, udalerri handietan %42,1 eta txikienetan %36,9).

**Joateko ohitura dutenak hiruhilekoan 3,2 aldiz joaten dira, batez beste**. Nafarroako biztanleen batezbestekoa EAEkoena baino pixka bat handiagoa da (3,4 eta 3,2 aldiz, hurrenez hurren); Ipar Euskal Herrian, berriz, gutxiago joaten dira (2,5 aldiz).

**Denbora falta eta kostu ekonomikoa dira zinemara gehiago ez joateko arrazoi nagusiak.** Zinemara gehiago joango liratekeenen erdiek ez dute egiten denbora falta dela eta. Galdetutakoen %41,8k kostu ekonomikoa ere aipatu dute. Eskaintza ez da agertu gehiago ez joateko arrazoi gisa.

## Zinema-kontsumoa beste formatu batzuetan

**Euskal Herriko biztanleen bi herenek beste formatu batzuetan kontsumitzen dute zinema (bideoa, DVDa)**. Aretoetara joaten direnen datuetan azkena bazen ere, Ipar Euskal Herria aurrena da horrelako kontsumoan (biztanleen %69,1ek). Atzetik du Nafarroa (%65,2) eta, azkenik, EAE (%63).

**Kontsumo hori gazteenei eta heziketa-mailarik handiena dutenei lotuta dago**. Pertsona gazteen %85ek baino gehiagok ikusten du zinema horrelako euskarrietan, eta ehuneko hori %28,8raino jaisten da 64 urtetik gorakoetan. Horrez gain, unibertsitate-ikasketak dituztenen %76,6k eta ikasketarik gabekoen %29,4k formatu horietara jotzen du.

**Eskuratzeko modu nagusia bideo-klubetan alokatzea bada ere, adinaren arabera alde handiak daude sarbide-motan**. Esate baterako, gazteenen %45ek Internetetik deskargatzen ditu, eta helduenen %49,1ek, berriz, lagunek eta familiakoek utzitakoak erabiltzen ditu.

## 7.2. DATU ESTATISTIKOEN AUKERAKETA

**142. irudia.** Pertsonak, zinemak sortzen dien interes-mailaren arabera (%)




**143. irudia.** Zinemak sortzen duen interes-maila, lurraldearen arabera (batezbestekoa)




**144. irudia.** Zinemak sortzen duen interes-maila, sexuaren arabera (batezbestekoa)




**145. irudia.** Zinemak sortzen duen interes-maila, adin-taldearen arabera (batezbestekoa)




**146. irudia.** Zinemak sortzen duen interes-maila, ikasketa-mailaren arabera (batezbestekoa)



**147. irudia.** Pertsonak, zinemara joateko ohituraren arabera (%)




**148. irudia.** Zinemara joateko ohitura duten pertsonak, lurraldearen, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-maila eta udalerriaren tamainaren arabera (%)




Joateko ohiturak dutenak (azken hiruhilekoan zinemara joan diren pertsonak)

**149. irudia.** Zinemara joateko ohitura duten pertsonak, joandako emanaldien arabera (%)




Oinarria: Joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan zinemara joan diren pertsonak, biztanleen %41,8)





**150. irudia.** Pertsonak, zinemara gehiago ez joatean eragina duten arrazoien eta lurraldearen arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Zinemara gehiago joatea gustatuko litzaieken pertsonak, biztanleen %58

**151. irudia.** Pertsonak, zinema beste formatu batzuetan kontsumitzeko ohituren arabera (%)



**152. irudia.** Zinema beste formatu batzuetan kontsumitzen duten pertsonak, lurraldearen, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren tamainaren arabera (%)




Zinema beste formatu batzuetan kontsumitzen duten pertsonak (egunero edo ia egunero, astean behin baino gehiagotan, asteburuetan, hilean behin baino gehiagotan edo gutxiago)

**153. irudia.** Pertsonak, bideoak eskuratzeko moduaren eta adin-taldearen arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Zinema beste formatu batzuetan kontsumitzen duten pertsonak (egunero edo ia egunero, astean behin baino gehiagotan, asteburuetan, hilean behin baino gehiagotan edo gutxiago), biztanleen %64

# 8. ARTE ESZENIKOAK ETA BERTSOLARITZA



8.1. Sektorearen ikuspegi orokorra

8.2. Datu estatistikoen aukeraketa

# 8. ARTE ESZENIKOAK ETA BERTSOLARITZA

## 8.1. SEKTOREAREN IKUSPEGI OROKORRA

### Arte eszenikoetarako interesa

**Arte eszenikoen artean, antzerkiak eragiten du interes gehien biztanleengan**. Antzerkiak soilik du bostetik gorako batez besteko balorazioa (10etik 5,2). Dantzaren eta lirikaren publikoa minoritarioa da, eta biztanle gehienek adierazi dute ez zaizkiela interesatzen. Hori dela eta, aztertutako jarduera kultural guztien artean, horiek eskuratu dituzte batezbestekorik txikienak (dantzak 3,8koa du, eta lirikak 3,4koa).

**Arte eszenikoetarako interes-maila handiagoa da emakumeetan, eta heziketa-mailak gora egin ahala, gora egiten du**. Ohikoa den bezala, biztanleen ikasketa-mailak garrantzi handia du kultura-jardueretarako portaeran. Adibidez, antzerkirako interesa 6,1ekoa da unibertsitate-ikasketak dituzten pertsonetan, eta 4,2koa amaitutako ikasketarik ez dutenetan. Emakumeei gehiago interesatzen zaie antzerkia gizonezkoei baino (emakumezkoek 5,7 eta gizonezkoek 4,6). Antzeko joerak daude lirikan zein dantzan.

### Arte eszenikoetara joateko ohitura

**Euskal Herriko hamar biztanletik bi joan dira antzerkia ikustera azken urtebetean**. Jende gutxiago erakartzen dute dantzak eta lirikak (zehazki, biztanleen %9,5ek gozatu zuen dantzaz denbora-tarte horretan bertan, eta %6,9 joan zen lirikako ikuskizun batera). Alde hori are nabarmenagoa da joan ez direnen zifrak aztertzean: antzerkira %55,5; dantzara %77,4 eta lirikara %80,8.

**Arte eszenikoetako joan ohi direnei erreparatuta, zaletasun desberdinak dituzte lurralde bakoitzekoek**: Nafarroako biztanleak joaten dira gehien antzerkia ikustera (biztanleen %11,8); Ipar Euskal Herrikoak dantza-emanaldietara (%6,5) eta EAEkoak, berriz, lirikara (%3,6).

**Emakumezkoak dira arte eszenikoen ohiko ikusleak.** Gizonezkoak baino gehiago joaten

dira diziplina guztietara: antzerkira emakumezkoen %11 eta gizonezkoen %8; lirikara %3,8 eta %2,5; eta dantzara %4,9 eta %3, hurrenez hurren. Ikasketa-mailari dagokionez, aztertutako kontsumo guztietan duen eragin bera du heziketa-mailak. Zenbat eta handiagoa izan, orduan eta finkatuago dago arte eszenikoetara joateko ohitura.

**Dantzaren publikoa leialagoa da.** Intentsitateari dagokionez, arte eszenikoen kontsumoan, hiru hilabetean behin ikuskizun bat ikustera joatea da ohikoena. Publikorik "militanteena" (hiruhilekoan hiru aldiz baino gehiago joaten direnak) dantza-ikuskizunena da (%16,7).

**Ikuskizun eszenikoetara gehiago joatea eragozten duten arrazoiak denbora faltari eta kostu ekonomikoari lotuta daude**. Ikuskizun eszenikoetara gehiago joango liratekeen baina joan ez diren pertsonen %47,1ek esan du ez joan izanaren arrazoi nagusia denbora falta dela. Bigarrenik, kostu ekonomikoa aipatu dute (%31,7), eta %23,4k, berriz, esan du eskaintza ez dela behar bestekoa. Azpimarratzekoa da Nafarroako biztanleentzat distantzia alderdi garrantzitsua dela (%19,1).

**Antzerkira joaten diren elebidunen erdiek baino gehiagok euskarazko lanak ikusi dituzte**; zehazki, azken urtebetean antzerkira joan diren elebidunen %50,8k. Euskarazko antzerkia ikustera publiko heldua joan da gehien (35 eta 54 urte artekoak). Deigarria da, halaber, Ipar Euskal Herriko elebidunen militantzia berezia (%88,8).

## Bertsolaritza[1]

**Bertsolaritza-emanaldiek 5,1eko interesa eragiten dute biztanle elebidunetan, eta hori baino handiagoa helduetan** (helduek 5,6ko balorazioa eman dute, eta gazteenek 4,9koa) eta emakumeetan. Lurraldeka, Nafarroan daude baliorik handienak (5,7).

**Bertsolaritza-emanaldien ikusleek profil propioa dute, eta profil hori gainerako arte eszenikoetatik bereizia da**. Arte guztietako publikoan emakumeak nagusi badira ere, bertso-saioetara gizonezko gehiago joaten dira emakumezkoak baino (gizonezkoen %9,2 eta emakumezkoen %7,1). Horrez gain, azpimarratzekoa da EAEn zabalduago dagoela (%8,7) Euskal Herriko gainerako lurraldeetan baino, eta joateko ohitura duten pertsonak gazteagoak direla (15 eta 24 urte artekoen %12,6) gainerako arte eszenikoekin alderatuta.

[1] Los datos del Bertsolarismo utilizan como base la población bilingüe, mientras que para las otras disciplinas la base es toda la población.

[1] Los datos del Bertsolarismo utilizan como base la población bilingüe, mientras que para las otras disciplinas la base es toda la población.

## 8.2. DATU ESTATISTIKOEN AUKERAKETA

**154. irudia.** Pertsonak, arte eszenikoek sortzen dieten interes-mailaren arabera (%)




**155. irudia.** Arte eszenikoek sortzen duten interes-maila,eremu geografikoaren arabera (batezbestekoa)




**156. irudia.** Arte eszenikoek sortzen duten interes-maila, sexuaren arabera (batezbestekoa)




**157. irudia.** Arte eszenikoek sortzen duten interes-maila, adin-taldearen arabera (batezbestekoa)



**158. irudia.** Arte eszenikoek sortzen duten interes-maila, ikasketa-mailaren arabera (batezbestekoa)




**159. irudia.** Pertsonak, antzerkia ikustera joateko ohituraren arabera (%)




**160. irudia.** Pertsonak, lirikara joateko ohituraren arabera (%)




**161. irudia.** Pertsonak, dantza-ikuskizunetara joateko ohituraren arabera (%)




**162. irudia.** Pertsona elebidunak, bertsolaritza-emanaldietara joateko ohituraren arabera (%)



**163. irudia.** Antzerkia ikustera joateko ohitura duten pertsonak, eremu geografikoaren, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren tamainaren araber




Joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan antzerkira joan diren pertsonak)

**164. irudia.** Lirikara joateko ohitura duten pertsonak, eremu geografikoaren, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren tamainaren arabera (%)




Joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan lirikara joan diren pertsonak)

**165. irudia.** Dantza-emanaldietara joateko ohitura duten pertsonak, eremu geografikoaren, sexuaren, adin-taldearen, hizkuntza-gaitasunaren, ikasketa-mailaren eta udalerriaren tamainaren arabera (%




Joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan dantza-emanaldietara joan diren pertsonak)

**166. irudia.** Bertsolaritza-emanaldietara joateko ohitura duten pertsona elebidunak, sexuaren, adin-taldearen, eta ikasketa-mailaren arabera (%)




Joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan bertsolaritza-emanaldietara joan diren pertsona elebidunak)

**167. irudia.** Ikuskizun eszenikoetara joateko ohitura duten pertsonak, emanaldi-kopuruaren arabera (%)




Oinarria: Joateko ohitura dutenak (azken hiruhilekoan arte eszenikoen ikuskizunetara joan diren pertsonak:antzerkia -9,5%, lirika-3,2%, dantza-4% eta bertsolaritza 4,1%)

**168. irudia.** Pertsonak, ikuskizun eszenikoetara gehiago ez joatean eragina duten eremu geografikoaren arabera (erantzun ugari) (%)




Oinarria: Arte eszenikoen ikuskizunetara gehiago joatea gustatuko litzaieken pertsonak, biztanleen %52,9

**169. irudia.** Pertsona elebidunak, azken urtebetean euskarazko antzerki-ikuskizunetara joan diren aldien arabera (%)




Oinarria: Azken urtebetean antzerki-emanaldietara joan diren pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %24,7

**170. irudia.** Pertsona elebidunak, azken urtebetean euskarazko antzerki-ikuskizunetara joan diren aldien eta sexuaren arabera (%)




Oinarria: Azken urtebetean antzerki-emanaldietara joan diren pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %24,7

**171. irudia.** Pertsona elebidunak, azken urtebetean euskarazko antzerki-ikuskizunetara joan diren aldien eta adin-taldearen arabera(%)




Oinarria: Azken urtebetean antzerki-emanaldietara joan diren pertsona elebidunak, biztanle elebidunen %24,7

# 9. METODOLOGIA



# 9. METODOLOGIA

Estatistika-eragiketa honen helburu orokorra da CAEn, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian bizi diren 15 urtetik gorako pertsonen egoera aztertzea, ohitura, praktika eta kontsumo kulturalari eta euskal kulturari dagokiena, batik bat. Jarduera kultural batzuek sortzen duten interesaren, jarduera kulturalen maiztasunaren eta intentsitatearen eta eguneroko kultura-kontsumoaren ezaugarrien irudi erreala izatea da azterketaren helburua.

Inkestaren emaitzak bateragarriak izan daitezke Eurostatek, Espainiako Kultura Ministerioak eta Frantziako Ministèrie de la culture et de le Communication-en sustatutako ikerketekin, informazio-helburu eta adierazle berak erabili dira eta; hala ere, emaitzak alderatzean, kontuan hartu behar da inkestak ez direla une eta garai berean egin.

## Kontzeptu orokorrak

Oro har, oinarrizko hiru kontzepturi buruzko informazioa eskatu da, eta, ondoren, zeharka erabili da informazio hori aztertutako azpiatal bakoitzean:

**Interes-maila:** galdetutako pertsonak jarduera kultural jakin batzuetarako duen zaletasuna jasotzen du. Informazioa ahalik eta zehatzena izateko, jarduera bakoitzari puntuazio bat emateko eskatu da, 0 eta 10 arteko eskalan.

**Ohitura:** aztertutako pertsonek jarduera kultural batzuen aurrean duten ohiko portaeraren adierazle orokorra da.

**Jarduera:** maiztasunari eta intentsitateari egiten dio erreferentzia —zenbat aldiz joan diren edo zenbat denbora

### Fitxa teknikoa

**AMBITO GEOGRAFICO**
Eremu geografikoa.

**INFORMAZIO-BILKETA**
Ikertalde Grupo Consultor-ek egina. Telefono bidezko elkarrizketa gaztelaniaz, euskaraz eta frantsezez galdera-sorta egituratu bidez.

**UNIBERTSOA**
Euskal Herriko 15 urtetik gorako herritarrak.

**LAGINAREN NEURRIA**
6.785 elkarrizketak.: 3.986 CAEn, 1.461 Nafarroan eta 1.338 Ipar Euskal Herrian.

**LANAGINAREN ERRORE-MARJINA**
Laginaren errore-marjina ± %1,2 koa da, %95eko konfiantza-mailarekin eta gehienezko indeterminazioaren suposizioarekin (p=q=%50).

**LAGINKETA-PROZEDURA**
Etapa anitzeko laginketa bi etapetan: lehen unitateak (etxebizitzak), telefono-zenbakien ausazko hautaketa bidez. Bigarren unitateak (norbanakoak), sexuaren, adinaren, euskararen ezagutzaren, lurraldearen eta eta udalerriaren tamainaren arabera.

**INKESTA EGIN ZEN DATA**
2007ko abenduaren 18tik 2008ko martxoaren 14ra